# E I B A R





## SUZKO ARMEN HISTORIA G. MUJIKAREN LIBURUAN ETA GEROKO BESTE HISTORIA BAT

Gregorio Mujikak, Eibarko historiaren liburua eskribitzean (**Monografía Histórica de la Villa de Eibar**, Irún, 1910) ondo ekian gerrateak diralata jardutzea baino zerbait gehiago zala errien kondaira.

Horregaitik, bertan, erriak sarri heuren gogoz kontra izaten dituen gerretatik aparte, heuren eboluzinoan goraka dakarten bizitza erak inportantzia gehiago dauke. Erriko instituzioak, agintaritza gora-beherak, industriaren aldakuntzak, erriko obrarik nagusienen egintzak, gizon ospetsuak, lana, artea... Denak dokumentuz ondo ornituak. Lehengo denporetan gure erria eta bertako giroa zer ziran agertzen deuskuan agiri aberatsa benetan.

Eibarko industriaren ahlmenak, armagintzatik aparte, textilgintza, erlojugintza, organugintza, eta era guztietako tresnak egiten zirala jakin leike. Baita erria gobernatzeko ziran ohituretan bertan be badauke gaurkoak zer ikasi. Bestalde, nungelditu ete ziran orduango usak edo erri-basoak «egurtzak», guztionak ziranak. Arteko nagusinen gainean, Araoz eta Gregorio Fernández-en erretabluen barri zehatzak (bigarrenarena azken gerratean erre zan), edo Velázquez-en kuadru baten gora- beherak. Argi emoten ditu heuron barriak.

Ezta erreza konprenditzea erri bateko gauzaz ainbeste material jasotzea. Eta guztiak interesanteak, bakotxa bere mailan edo bere gaian.

Izugarria da G. Mujikak honotarako eukan bizkortasuna. Liburu honek, 1908-ko «Fiestas Euskaras»-en Eibarko ayuntamentuak antolatu eban saria irabazi eban.

XIV-garren mendeko berriren bat edo beste eukiarren, XVI-tik XIX-rakoa da liburuaren mamina. Liburu landua. Gaur egun, Eibarko edozer jakin nahi dabenak bertako iturrietara jo beharra dauka.

Ainbeste gauza jakingarriren artean dakarrenik sakonenetakoa da suzko armen historia. Zehatz-mehatz aztertzen ditu Europako armagintzaren barriak eta bardin Eibar eta bere ingurukoa. Ezta konformatzen armak eta heurak egiteko eregaz, baita be emoten ditu zenbatek eta zenbat espezialidadek parte artzen eben armagintzan eta produzino estadistikak eta armen salneurriak.

Sarri gertatzen jakuna da kanpokoa obetzat artzea, eta holako zerbait gertatu izan jaku Gregorio Mujikaren **Monografía**-gaz be. Errikoak ez deutsagu emon behar daben garrantzia eta kanpoko askok aztertu dabena da.

Bere interesgarriaren neurritzat agiri hau emon nahi dot: Amar urte izango dira lotsa gutxigaz liburu honen suzko armen historia plajiatu zala. Moduz gainera plajiatu be, ezer barririk gehitu barik, puntutxo batzuetan bakarrik pixkat aldatuaz eskribitzeko forma, eta zenbait uts sartuaz, inoiz urteak be oker ipiniaz. Plajio hau, «Historia de las armas de fuego» izenez, **Ingenieria** eta **Metalurgia y Electricidad** aldizkariak argitaratu eben. Baina hori gutxi dalarik, Eibarren, ain interesantea zala ikusi zanez, bertan be argitaratzea pentsatu zan, eta Armedia-Eskolako Boletin de la Asociación de Antiguos Alumnos-en zatika argitaratu zan, 24-38 zenbakietan, **Ingenieria**-tik artua zala esanez. Emen beintzat, gutxienez nundik artua zan esaten zan; harek, lapurretan egin ebenez, ez eben esaten inundik artua zanik be.

Hor, nundik ezagutu genduan gure liburuaren garrantzia. Etxean geunkana auzoko espiluan ikusi genduanean. Egia esan, norpere begiko zamarra ez el da ikusten.

Txarrenian be, eruan ebena ekarri genduan.

**JUAN SAN MARTIN**

*Teodoro Agirre*

**LANGELA — MOTAK**

Avda. Sancho el Sabio, 6
Urrutizkiñak: 29152 ta 15126
DONOSTIA'n

Plaza de los Mártires, 2
Urrutizkiña: 717754
EIBAR (Gipuzkoa)

**DEJ, S. A.**

INDUSTRI - ETXEA

ZATIEN ETEN TRINKAKETA
MOLDAKATZA GUZITARIKOAK

Avda. de Bilbao, s/n. (Junto a Arbitrios)
Apartado 128 — Urrutizkiña 721143
— E I B A R — (Gipuzkoa) —

**Biktor Urrutibeascoa**

OKINDEGIA

Dos de Mayo, 16
Urrutizkiñak: 711868 - 716950
E I B A R - Gipuzkoa

— ★ —

Avda. de Guipúzcoa, 26
Urrutizkiña: 370
E R M U A - Bizkaia

**ETXEZARRAGA**

IRRATIA — TELEBISTA — OZKIÑAK

Mariangela, 8 — Urrutizkiña: 718370
Erakustegia ta Salmenta: Dos de Mayo, 17 — Urrut.ª 711011
— E I B A R — (Gipuzkoa) —

**Manola Larramendi**

SENDALARI - MIATZAILLEA
GAIXOARENTZAT BETI PREST

Fermin Calbetón, 19
— E I B A R — (Gipuzkoa) —

**Agirre ta Arantzabal**

SU - IZKILLUAK - EIZERAKO ISKILLUAK - ARMAGINTZA

— E I B A R — (Gipuzkoa) —

**ZIKLOMOTORRAK**

**MOBILETTE-"GAC"**
**BIZICLETAK "GAC"**

SALTZALLEAK GIPUZKOA'N:

On Jose Luis Miner - Ronda, 3 - San Sebastián
On Luis Suarez - Mayor, 7 - Beasain
P. F. Juaristi'ren Semeak - Arraguetar, 9 - Eibar
Mendizabal - Etxea. - R. M. Zuazola, 39 - Oñati

Fabrikanteak:
GARATE, ANITUA
ETA Cia., S. A.
APARTADO, 2
E I B A R

**«EVE» Industri-Etxea**

M. ETXEBERRIA

MOLDAKATZAK — EBAIKIÑAK ETA BETETZEKOAK — EDOZELAKO EZTEN - TRINKAKETA TA ERASKETA, EGITAMU TA EREDUEN NEURRITAN

Chonta, 34 Urrutizkiña: 721655
— E I B A R — (Gipuzkoa) —

**Donosti'ko Aurrezki Kutxa Errikoa**

1871'GARRENEAN IRIKIA

EIBAR'ko Kontu-Etxea, Av. Generalísimo, 19'an - Urrutizkiña: 711577

ERRIETAKO KONTU - ETXEAK:

Andoain, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Zestua, Deba, Eibar, Elgoibar, Ondarrabia, Getaria, Ernani, Irun, Lasarte, Lazkao, Legazpia, Mondragoi, Mutriku, Oñati, Orio, Oiartzun, Pasai Antxo, San Juan eta San Pedro, Plazentzi, Errenderi, Tolosa, Bergara, Billabona, Billafranka, Zarautz, Zumarraga ta Zumaia.

DONOSTI'KO AUZOGUNETAKO KONTU - ETXEAK:

Alza, Herrera, Amara, Antiguo, Udaletxea, Bretxa, Gros eta Urbieta. Laster rikitzekoak: Amara, Intxaurrondo ta Azkuene'n.